

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Terrorismoa goستن duten eta udalek ezabatzen ez dituzten pintadak kentzen hasi dira

Azaroan Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Ordezkaritzaren artean sinatutako protokoloaren arabera, hamar bat garbitu dira Arbizon eta Etxarri-Aranatzen

Viernes, 11 de enero de 2013

Nafarroako zenbait udalerritan dauden terrorismoa goretsi edo txalotzen duten pintadak kentzen hasi dira Arbizon eta Etxarri-Aranatzen gaur goizaldean (udal horietan pintada horiek garbitzeari uko egiten diote). Jarduera hori iragan azaroan Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernu Ordezkaritzaren artean sinatutako [protokoloaren](#) barnean sartzen da.

Guardia Zibilaren txosten batean oinarrituz, Ordezkaritzak haiek garbitzea eskatu zuen duela hilabete baino gehiago, baina bi udalek ez zuten beren eskumena gauzatu. Haiek kentzeko emandako hilabeteko epea pasa ondoren, Nafarroako Gobernuak kontratatutako enpresa bateko langileek, Foruzainen laguntzarekin, hamar bat pintada kendu dituzte (garrantzi handienekoak).

Lan horiek mila euro inguruko kostua dute, eta Nafarroako Gobernuak udalei eskatuko die; izan ere, garbiketako zerbitzu publikoa emateko eskudunak dira. Ordaindu ezean, kopuru hori Nafarroako Zergetan Toki Ogasunen Partaidetzako Fondoko transferentzietatik kenduko da.

Segurtasun-indarrek –Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Foruzaingoa– ez dute aipamen terroristak egiten dituzten garrantzizko beste pintada edo pankartarik hauteman. Hautemanaz gero, txostena aurkezten dute beren administrazioaren aurrean, eta azken hori dagokion udalari gogoratzeaz arduratzen da, hau da, epe bateko epean haiek garbitu edo kentzeko duen legezko betebeharrak.




Arbizon, Nafarroako Gobernuak kontratatutako langileek ETArekin aldeko pintada bat kentzen.

Epea pasa ondoren, egiaztatzen da Nafarroako Gobernuaren edo Gobernuko Ordezkaritzaren eskaera gauzatu den. Hala ez bada, Foru Gobernuak pintadak garbitu eta kenduko ditu eta kostu ekonomikoa betearazten ez duen udalaren kargu geratuko da, Ordezkaritzak eta Gobernuak sinatutako protokoloa betez arlo horretan funtzioen bikoiztasunei amaiera emateko eta udalen tolerantziarekin amaitzeko.

Galería de fotos



Pintadak kentzen, Etxarri-Aranatzen.



Pintadak kentzen, Etxarri-Aranatzen.



Pintadak kentzen, Arbizun.